



DIRU SARREREN ITURRIAK

Hasieran, enpresa martxan jartzeko, tokiko Administrazio Publikoaren diru laguntzak eskatuko ditugu. Aurrerago, enpresaren diru sarrerak erabiltzaileek egindako ordainketetatik etorriko dira eta supermerkatuei beraien produktua saltzeagatik lortutako komisioetatik. Era berean, laguntza publiko gehiago ere lortu ditzakegu Estatu mailan proiektuak arrakasta badu.

Pertsona ezinduekin erlazionatuta dagoenez ideia hau, udala ados egon da diru laguntza batzuk ematearekin; izan ere, pertsona horien bizitza erraztuko dugu, eta laguntza gisa ikusten dute.

Gure zerbitzua erabili duten bezeroek, erabiltzeagatik ordainduko digute, gainera supermerkatuekin lan egiten dugunez, supermerkatu horien produktuak saltzeagatik komisio bat edukiko dugu.

Gainera, gure proiektuak arrakasta baldin badu, beste laguntza publiko batzuk eskatuko ditugu Estatu mailan.

Horretaz gain, elkarte anonimo (S.A.) bat sortuko dugu eta enpresa sortzeko gutxienez 60000 euro inbertitu behar izango ditugu eta 3 garenez, bakoitzak 20.000 euro jarriko ditu bere aurrezkietatik. Ekarpen hau egiteko bakoitza bere buruaz arduratuko da, bai banketxeari bai gurasoei eskatuz.